272. zk.
Bigarren aroa
Martxoak 1
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Maialen Garcia dantzariari elkarrizketa

9. orrialdea

Kirolak
4x4 Milia errelebo lasterketa.

8. orrialdea

“Erakargarriak iruditzen zaizkidan aurpegiak aukeratzen ditut”

Iraitz Arabolaza

3 **Berria:** Euskararen hilabetea.
4 **Caser**
5 **Erreportajea:** Gizarte jantokia.
6 **Berri laburrak:** Zenbait berri.
7 **Erreportajea:** Antxeta Irratiak 15 urte bete ditu.
10. **Elkarrizketa:** Monica Zafra, frantses filologoa.
11. **Haurren lanak:** San Vicente de Paul.
12 **Gazteen lanak** San Vicente de Paul.
13 **Gaztea** Iraitz Arabolaza artistari elkarrizketa.
14 **Gazte infor**
15 **Agenda**

Argazki lehiaketa

Irati Sanchez
Baserriaren eta merkataritza-gunearen elkarbizitza.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 41141

Korrokoitz kalea

Joan den mendeko hiriko kaleen zerrendan agertzen ez den arren, hiritarrek modu arruntean erabili izan zuten, izena ofizial noiz bilakatu zen dioen erreferentziarik ez badago ere. "*A. Korrokoitz*" goitizena erabili zuten "El Bidasoa" aldizkarian argitaratutako idatzi batzuetan. Baina José Monjek ez du uste kalearen izenarekin zer ikusia duenik.

Dena den, zalantzarik gabe, izen horrek Dunboa kanalean zeuden korrokoi piloari egiten dio erreferentzia. Luis de Uranzuk azaldu zuen Irunen korrokoi izenarekin ezagutzen zen arrain izenaren jatorria. Lapurditik omen dator, eta gure herrian pertsonei aplikatuta ere erabiltzen zen, gizon zuhurraren sinonimo bezala. Autoreak berak esaten du dokumentu zahar batean irakurri daitekeela Hondarribiak Miguel Sanz de Venesari lizentzia eman ziola 1531. urtean errota bat eraikitzeko, Korrokoitz zubiaren eta Miguel Arbelaitz etxearen artean.

Aipatu Luis de Uranzuk eransten du 1882an Korrokoitz zubia 2,58m zela zabal. Santa Elena kalea 8m zen zabal.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Euskarazko kultura eskaini die Irungo Udalak ikastetxeetako haurrei eta gazteei, Euskararen Hilabetean

Irungo Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitako ekimena da

Otsailaren 16an hasi da 2016ko Euskararen Hilabetea. Irungo Udaleko Euskara arloak 1988az geroztik antolatzen duen jardueren egitaraua da. Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko haurrei eta gazteei zuzenduta prestatzen dute. Aurten, 7.267 ikasle izango dira parte hartzaileak. "Programarekin, gazteen sentsibilizazioan eta motibazioan eragin nahi dugu, euskararen aldeko jarrera sustatuz", adierazi du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

"Gazteen sentsibilizazioan eta motibazioan eragin nahi dugu, euskararen aldeko jarrera sustatuz"

Josune Gomez, Euskara arloko ordezkaria

"Hitz egiteko emango zaizkien gaiak, gazteen interesekoak izango dira"

Arantza Zulet, Euskara arloko teknikaria

Ikuskizun ezberdinak antolatu ditu Euskara arloak, ikasleen adinaren arabera. Amaia Kultur Zentroak hartuko ditu guztiak. Otsailaren 16an eta 17an, *Futbolariak eta printzesak* antzerkia ikusi dute Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek. Eidabe taldeak prestatzen duen ikuskizuna da, topiko sexistei aurre egiten diena, eta haurrak parekidetasunean eta berdintasunean hezteko helburua duena. "Ikastetxeetan kezka handia dute gaiaren inguruan, eta ahalegina egiten ari dira ikasleekin lantzeko", azaldu du Arantza Zulet Euskara arloko teknikariak.

Otsailaren 18an, *Zergatik Jamil* antzezlana eskaini die Tartean Teatro taldeak DBHko 1.go eta 2.mailako ikasleei. Arantza Zuletek azaldu du argumentua: "Adineko pertsona bat zaintzen duen gaztearen istorioa da. Egun batean, kolpe baten ondorioz memoria galdu, eta esnatzerakoan, zaintzen zuen gizona hil egin duela jakingo du gazteak. Heriotzaren inguruko gogoeta egiten du obrak, misterio pixka batekin". Emanaldiaren ondoren, ikusle izan diren ikasleek eta irakasleek solasaldia izan dute aktoreekin, Amaia KZn bertan.

Martxoaren 2an eta 3an, *Martina eta paperezko basoa* txotxongilo ikuskizunarekin gozatuko dute Haur Hezkuntzako txikiek. L'Horta Teatre konpainia valentziarraren lana da, Euskal Herrian eskaintzeko, euskarara egokitua. Egurrezko etxe batean bizi den paperezko neska baten gorabeherak kontatzen ditu. "Begiez gozatzeko proposamena da", baieztatu du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.



Helduenentzat, Gartxot filma eta mintzaldia

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek ez dute antzerkirik ikusiko, animaziozko filma baizik. Asisko Urmenetaren eta Juanjo Elordiren *Gartxot, konkista aitzineko konkista*, hain zuzen ere. 1917an Arturo Campionek idatzitako *Gartxot, Itzaltzuko bardoa* liburuan oinarritutako lana da. Asisko Urmeneta egileak azaldu du zer nolako gaiak lantzen dituen: "Euskararen galera nola eta zergatik hasi zen, XII.mendean boterea zeinen esku geratu zen eta zergatik, Donejakue bidea, bardoak, Iruñeko erregearen eginkizuna etab.". Martxoaren 4an ikusiko dute gazteek filma, eta hurrengo astean zehar, Urmenetaren bisita jasoko dute. *Gartxot, konkista aitzineko konkista* nola egin zuten argituko die, eta filmak jorratzen dituen gaien inguruko solasaldia bideratuko du.

Martxoaren 7tik 11ra arteko aste horretan, Word Coffe saioa antolatuko dute, institutuetako ikasleei zuzenduta. Ez dute eguna zehaztu, baina Udaletxeko areto nagusian egiteko asmoa dutela adierazi dute. Euskararen Nazioarteko Egunean, institutuetako ikasleek ezin izan zuten Sareuskak Hondarribian antolatutako Mintzodromoan parte hartu. Konpentsazio gisa, Euskararen Hilabetearen harira prestatu die Euskara arloak mintzaldia. "Hitz egiteko emango zaizkien gaiak, gazteen interesekoak izango dira, seguruenik haiek proposatutakoak", baieztatu du Arantza Zuletek: "Han ateratzen diren konklusioei erabilpena ematen saiatuko gara". Euskararen Hilabetearekin bat eginez, Irunero aldizkariak bi ale berezi aterako ditu, ikastetxeetako ikasleen lanekin.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Caser Betharram

Belaunaldien arteko tailerra eta jolas ludikoak Caser Betharramen

Egoiliarrek belaunaldien arteko jarduerak egin ahal izan ditzaten, ahalegina egiten dute Caser Betharramen. Oraingoan, Donostiako Marianisten ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 15 ikasle hurbildu dira Caser Residencial Betharramera, egoiliarrekin belaunaldien arteko tailerra eta jolas ludikoak egitera. Egin dituzten eskulanetako batzuk ikus daitezke argazkietan.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

Gizarte jantokiaren eta topalekuaren balorazio baikorra egin dute udalak eta Rais enpresak

Mirarietako Ama Birjinaren kalean daude Irungo gizarte jantokia eta topalekua. Erabiltzaileak, ordea, ez dira mirakulu eske joaten. Egunero dutxatzea eta jatea oinarrizko beharrak baldin badira ere, ez daude denen esku. Bazterketa sozialeko egoeran, edo haren arriskuan dauden 200 erabiltzaile inguru hartu zituzten 2015ean gizarte jantokian eta topalekuan. Haien higiene eta elikadura beharrak asetzeaz gainera, hobekuntza prozesuei ekiten saiatu dira bertako gizarte langileak. Eskainitako zerbitzuaren balorazio baikorra egin dute.

Bazterketa sozialean edo haren arriskuan daudenei zuzendutako zerbitzuak dira gizarte jantokia eta topalekua. Irungo Udalak eskaintzen ditu, baina azpikontratatutako Rais enpresak kudeatzen ditu. 2015 urteko balorazioa eskaini dute gizarte jantokian. Mikrofonoak, grabagailuak, telefono mugikorrak eta ordenagailu eramangarriak hartu dituzten mahai horietan bertan, haien eguneroko bazkaria jan dute 192 erabiltzailek, joan den urtean. Gehienak gizonezkoak izan dira, %80. Erabiltzaileen %37, EAEkoak edo estatuko beste lekuetakoak izan dira. Gizarte jantokian bazkaltzeko, lau baldintza bete behar izan dituzte erabiltzaileek: adin nagusikoak izatea, gizarte bazterketa egoeran edo haren arriskuan egotea, Irunen erroldatuak edo bertan ezarritakoak izatea, eta RGI/DBI Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baino gutxiagoko diru-sarrerak edukitzea. Irungo Udaleko Gizarte Ongizatea arloa arduratzen da baldintza horiek egiaztatzeaz.

Gizarte topalekua erabiltzeko, baldintzak berdinak dira, salbuespen bakarrarekin. Ez dute gehieneko diru-sarrerarik eskatzen. Hori dela eta, ez dago aldez aurretik Gizarte Ongizatea arloan eskaerarik egin beharrik. Beste zenbait zerbitzu eskaintzen dituzte bertan. Dutxek 197 erabiltzaile izan zituzten 2015ean, arropa garbigailuak 145, eta higiene pertsonaleko guneak 164. Akonpainamendu zerbitzuak izan zuen erabiltzaile gehien: 278. Bertan, aisialdia betetzeko aukerak eskaintzen dizkiete erabiltzaileei: irakurri dezakete, ordenagailuak erabili, kafea hartu etab. Gainera, jolasak eta tailerrak antolatzen dituzte. Erabiltzaileen arteko harremanak sortzeko balio dute. “Oso gogorra da egunean zehar inorekin ez hitz egitea”, azpimarratu du Rais enpresako Nadia Fabok. Bazterketa sozialeko egoeran daudenen gabezia handi horri erantzuna ematen saiatzen dira topalekuan.

2015 urteko jardueraren balorazioa burobiltzeko, erabiltzaileen artean egindako inkesten emaitzak azaldu dituzte. Zerbitzuari eman dioten puntuazioaren bataz bestekoa bikainetik hurbil gelditu dela baieztatu dute Irungo Udaleko Ongizatea arloko eta Rais enpresako ordezkariek. “99 erabiltzailek erantzun dute topaguneari buruzko galdetegian, eta 54k jantokiari dagokionean. Lagin handi samarra da”, aipatu du Feli Goikoetxea komunitate esku-hartzeko teknikariak.

> “Oso gogorra da egunean zehar inorekin ez hitz egitea”
>
> Nadia Fabo, gizarte langilea

> “Iradokizun bakar bat jaso genuen, ideologiagatik begetarianoa zela zioen erabiltzaile batena”
>
> Feli Goikoetxea, komunitate esku-hartzeko teknikaria

Zerbitzuari kritikak

2015ean eskainitako zerbitzuaren balorazio ofiziala, Irungo EH Bilduk egindako salaketa baten ondoren heldu da. Azken aldian, gizarte jantokiaren eta topaguneaen zerbitzuek okerrera egin dutela baieztatu du talde politikoak, prentsaurrekoa baino aste batzuk lehenago argitaratutako oharrean. Batetik, janariaren kalitatea eta kantitatea okertuz doazela salatu du EH Bilduk. Feli Goikoetxea teknikariak erantzun du kexa, erreklamazio eta iradokizunen liburuan ez dutela halakorik bildu: “Iradokizun bakar bat jaso genuen, ideologiagatik begetarianoa zela zioen erabiltzaile batena. Pertsona horrek menu begetarianoa jasotzen du orain, erlijioa dela eta haragirik jaten ez dutenek bezala”.

Bestalde, EH Bilduk adierazi du gizarte zerbitzuek ez dutela inklusio soziala ahalbidetzen: “Sinpleki asistentzialak dira, karitatetik gertukoak”. Nadia Fabok, aldiz, nabarmendu du ez direla horretara mugatzen: “Pertsonalizatutako ibilbidea lantzen dugu erabiltzaileekin, haien egoera hobetzeko asmoz. Haiek erabakitzen dute prozesuaren erritmoa”. Askotan, motela izaten da, basikoak izaten baitira erabiltzaileen lehen helburuak. “Ondo dago enplegua lortzea eta halako helburu handiak edukitzea. Baina horretarako, lehen urratsa egunero dutxatzea izan daiteke”, adierazi du Nadia Fabok.

Askotariko iritziak

Amaitu da prentsaurrekoa, eta irten dira kazetariak gizarte jantokitik, eguneko beste zereginetara. Bitartean, erabiltzaile batzuk dutxa hartzeko ilaran daude. Beste batzuk topagunean, elkarrizketa animatuan. Kanpoko parkean ere badago jendea, bankuetan eserita. 60 urtetik gorako gizon bat zigarroa erretzen ari da, biriketako minbizia duen arren. Azaldu du ezin duela gizarte jantokia erabili, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duelako. Baina pentsio batean bizi da, eta hilero ordaindu behar du. “Ez zait jateko dirurik gelditzen”, kexatu da. Dutxatzera eta gosaltzera joaten da topagunera, baina zalantzan jarri du zerbitzuaren kalitatea: “Epez kanpoko esnea eta gailetak eman izan dizkigute. Gainera, kantitateak mugatzen dizkigute, eta gehiago hartzen baldin badugu, errieta egiten digute”. Erabiltzaileen artean gatazkak sortzea leporatu die gizarte langileei.

Beste erabiltzaile bat hurbildu da. Irundarra da, eta abandonatutako lokal batean bizi da. “Dutxa eta komuna dira zerbitzurik onenak”, onartu du. Janariari buruz, aldiz, baditu susmoak: “Asteburuetako pik niketako paketeak etiketarik gabe ematen dizkigute. Zergatik?”. Gizarte langileen partetik laguntza jaso izan duela adierazi du gizonak. Hala ere, erabiltzaileen beraien artean elkarri ematen dioten babesa azpimarratu du: “Arropa elkarbanatzen dugu, adibidez”. Gazte senegaldar batek ere eman du bere iritzia. Positiboa, kasu honetan: “Jantokiaren zerbitzua ondo dago. Badago jendea non jan ez duena”. Arropa garbitzeko zerbitzua ere erabilgarria dela aipatu du, baina batez ere, harremanak sortzeko topaguneak ematen duen aukera nabarmendu du.

Zabalik dago Solas Jolas udalekuetan izena emateko epea

Otsailaren 29an zabaldu dute Solas Jolas udaleku irekietan parte hartzeko aurre-inskripzioa. Martxoaren 11ra arte egin ahal izango da, udalaren web gunean, HAZ/SAC bulegoan edo 010/943 50 51 52 telefono zenbakietara deituta. Ondorengo datuak eman beharko dituzte gurasoek: haurren izen-abizenak, helbidea, harremanetarako posta elektronikoa eta sakelako telefonoaren zenbakiak, aukeratutako txanda, haurraren ikastetxea eta maila, eta Solas Jolaserako hautatutako ikastetxea. Haurrak dibertsitate funtzionala baldin badu, jakinarazi beharko dute.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda apirilaren 4an argitaratuko dute, udalaren web gunean. Erreklamazio epe bat egongo da, apirilaren 4tik 8ra, egon litezkeen akatsak zuzentzeko. Solas Jolaserako plazak apirilaren 15ean zozkatuko dituzte, eta plaza eskuratzen dutenei, posta elektronikoaren bidez bidaliko diete oharra, behin betiko izen-ematea egiteko inskripzio kodearekin eta erabili beharko duten loturarekin. Irun Txartela edukitzea ezinbestekoa izango da. Apirilaren 20tik maiatzaren 4ra egin beharko da behin betiko izen ematea.

Bi egun gehiago txanda bakoitzeko

Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletako, eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailara arteko haurrei zuzendutako ekimena da Solas Jolas (2006 eta 2011 urteen artean jaioak). Bosgarren eta seigarren mailan dauden, eta dibertsitate funtzionala duten haurrek ere parte hartu ahal izango dute. Bi txanda egingo dituzte. Lehenengoa, uztailaren 5etik 29ra izango da. Bigarrena, abuztuaren 2tik 26ra. Aurreko urteetan baino bi egun gehiago izango ditu txanda bakoitzak. Gainera, egun osoko irteera bat egingo dute taldeek. Bi hilabeteak kontuan hartuta, 600-700 haur espero dituztela adierazi dute arduradunek.

2015ean jaiotako irundar bakoitzeko, zuhaitz bat landatuko dute Siutzen

Haur bat, zuhaitz bat ekimenaren hamahirugarren edizioa egingo dute martxoaren 5ean Irunen. 2015ean jaiotako haurren izenean zuhaitzak landatzera gonbidatu ditu Irungo Udalak. Autobus zerbitzua jarriko du San Juan Plazatik Siutz muinora, Toki Alai eskolaren atarira. Bertan, zuhaitza landatzeko materiala jasoko dute familiek, eta Garapen Iraunkorreko teknikarien laguntza izango dute. Aitana Uria da horietako bat, eta ekimenaren helburua azaldu du: "Alde batetik, jaio direnen aitortza egitea da asmoa. Baina basoa berritzeak eta ingurumena zaintzeak duen garrantzia ere azpimarratu nahi dugu". Astigarrak, Lizarrak eta Urkiak landatuko dituzte Siutzen.

Sei landaketa txanda egingo dituzte, lana erosoagoa izan dadin. Parte hartzaileei gutunak bidali dizkie udalak egunotan, egokitu zaien txandaren berri emateko, eta koordenatuak zehazteko, zuhaitza zein puntutan landatu behar duten jakin dezaten. Autobusak ordu erdiro aterako dira Biserako geltokitik, 9:30etatik aurrera. 420 parte hartzaile baino gehiago izango dira aurten. Guztira, 2004an lehen edizioa egin zutenetik, 4.500ndik gora zuhaitz landatu dituzte Irungo mendietan.

2015eko helburuak bete ditu Ficobak

Ficoba erakustazokak 2015erako ezarri zituen helburuak bete dituela baieztatu du Ander Sarratea gerenteak. 243 ekitaldi izan dira erakustazokan, 2014an baino 28 gehiago. Bisitarien kopuruari eutsi dio (137.000). Datu horiek ondorioak izan dituzte kontuetan: 1.375.000 euroko diru-sarrerak izan ditu Ficobak (2014an baino %2 gehiago), eta %6,5eko superabitarekin amaitu du urtea.

Kontabilizatutako 243 ekitaldietatik, gehienak bilerak izan dira (%63). Jarduera kulturalak eta sozialak %31 izan dira, eta azokak, ekitaldien %6. "Diru sarreren ia %50 ekitaldi txikiei esker lortzen dugu. Egutegian pare bat azoka gehiago edukitzeak, fakturazioa nabarmen handituko luke", onartu du Ander Sarrateak.

Bisitarien kopuruari eutsi diote, baina gehiago espero zuten. Uste baino 6.000-7.000 bisitari gutxiago hartu dituztela aitortu dute. Azaroan Parisen izandako atentatuen ondoren mugako kontrolak emendatu izanak eragina izan duela uste dute erakustazokako arduradunek. Dena den, Ficobak jaso dituen bisitari gehien-gehienak gipuzkoarrak izan dira (%83). Behe Bidasokoak, eta eskualdetik kanpokoak.

Lau ardatz, hamabost urte ospatzeko

Eguneroko lan ildoekin lotutako jardueren egitaraua antolatu du Antxeta Irratiak

Hamabost urte bete ditu Antxeta Irratiak 2016ko otsailean. Urteurrena ospatzeko, urte erdiko jardueren egitaraua prestatu dute irratiko kideek, programazioan eta bestelako proiektuetan jorratzen dituzten lan ildo nagusiekin lotuta. *15 urtez uhinak orrazten* leloa hautatu dute. Otsailaren 26an egin dute egitarauaren aurkezpen ofiziala, Pausuko Xaia ostatuan. Antxetaren urteurrenaren abestia sortu duen Luz de Putas taldeak parte hartu du festan. Irratiko langileak, laguntzaileak eta inguruko jendea bildu dira Xaian.

2011n Antxeta Irratiak hamargarren urteurrena ospatu zuenean, proiektua herritartu eta ikusarazi egin nahi izan zuten irratiko kideek. Oraingoan, egunerokoan lantzen dituzten ardatzekin lotutako egitaraua prestatu dute: euskara, berdintasuna, etorkinen inklusioa eta eskualdearen kohesioa. “Informazio lokala lantzeaz gainera, ikuspuntu horiek txertatzen dituen programazioa du Antxeta Irratiak. Gainera, ardatz horien inguruko eragilea ere bada”, azpimarratu du Aitziber Zapirain langileak. Irratiaren egunerokoaren oinarri diren ardatz horiek, isla dute hamabosgarren urteurrenerako prestatu duten egitarauan.

Otsailean zehar, topaketa gastronomiko kultur anitzak antolatu dituzte, Hendaian, Irunen eta Hondarribian. Behe Bidasoan bizi diren argentinarrek, nikaraguarrek, senegaldarrek, ukrainarrek eta mexikarrek euren jakiak dastatzeko aukera eman dute. Martxoan, Hendaiako Herriko Etxeak Martxoan Euskaraz egitaraua antolatzen du, eta Antxetak bere ekarpena egingo du, euskal elkarteen arteko topaketa saio batekin. Berdintasunari dagokionez, zehazteke dagoen mahai-inguru bat antolatuko dute. Apirilaren 23an, bertso bazkaria egingo dute, Irunabar Irungo bertsoaren bilgunearekin elkarlanean. Eskualdeko artisten erakusketa eta aldizkari berezi bat ere prestatzen ari dira, besteak beste.

> “Zailtasunak zailtasun, ilusioz egin dugu aurrera”
>
> Maia Muruaga, Antxeta Irratiko langilea

Maiatzaren 6, 7 eta 8ko asteburuan, Bidasoan Euskaraz jaialdiaren edizio berezia antolatuko du Antxeta Irratiak. Hamabigarrena izango da jada. Irratiaren eskutik egin du aurrera Bidasoan Euskaraz-ek. “Hasierako edizioak ez ziren ondo atera. Baina urtero-urtero tematu gara festa antolatzearekin, eta pixkanaka egonkortu egin da. Gaur egun, eskualde osoko jendea etortzen da, hutsik egin gabe”, adierazi du Zapirainek. Antxeta Irratiaren bilakaerarekin konparatu du Maia Muruaga lankideak: “Zailtasunak zailtasun, ilusioz egin dugu aurrera”.

Helburu eta ikuspuntu argiekin sortu zen

2001eko otsailean jaio zen Antxeta Irratia, Lapurdiko Gure Irratiaren ekimenez. Behe Bidasoa eskualdean antzeman zituzten beharrei erantzuteko asmoz martxan jarri zutela azaldu du Muruagak: “Komunikazioaren aldetik, Bidasoaren bi aldeetako herrien arteko hartuemanetan gabezia handia zegoela ikusi genuen. Hutsune hori betetzeko, eta euskararen presentzia areagotzeko, irratia tresna baliagarria izan zitekeela pentsatu genuen”. Hondarribia, Irun, Hendaia, Urruña eta Biriatu herriek osatutako eskualdeari zuzenduta lan egiten dute, orduz geroztik. Ikuspegi hori gero eta hedatuago dagoela uste du Aitziber Zapirainek: “Biztanle askok bizi dute eskualdea hiri handi bat izango balitz bezala. Muga fisikoa desagertu zenetik, gero eta jende gehiagok jotzen du naturaltasunez alde batera eta bestera”.

Gure Irratiaren deslotura modura, frekuentzia legala lortu zuen Antxeta Irratiak Iparraldean. Frantziako estatuan, onarpen osoa du irrati elkarte gisa, legearen babesa du, eta diru-laguntzak jasotzen ditu. Hegoaldean, berriz, frekuentzia legal baten esleipenaren zain ari da oraindik. Gure Irratiko lankideek formatutako hiru langile hasi ziren Antxeta Irratian. “Hasiberriak ginen”, gogoratu du Maia Muruagak. Topatu zuten zailtasunik handiena, euskarazko informazioa normaltasunez jasotzea izan zela aipatu du Muruagak. Aitziber Zapirainek baieztatu du Antxeta Irratiak bultzada handia eman duela zentzu horretan: “Lan handia egin dugu eskualdeko komunikazio instituzionala euskalduntzeko. Elkarteek eta eragileek ere, ahalegina egin behar izan dute”.

> “Komunikatzeko eskubidea guztiona da, eta irratia herritarraren esku dagoen tresna besterik ez da”
>
> Aitziber Zapirain, Antxeta Irratiko langilea

Komunikabide arrunta baino gehiago ere bada

Irrati komunitarioa da Antxeta Irratia, eta komunikabideen hirugarren sektorean kokatzen du bere burua. Komunikabide publikoez eta pribatuez aparte. Elkartearen egitura juridikoa eta estatutuak ditu. Horrek esan nahi du, betebehar edo eginkizun batzuk dituela. Hori dela eta, eguneroko programazioa ekoizteaz gainera, aipatutako lau ardatz nagusien aldeko eragile ere bada. Proiektuak eta jarduera osagarriak burutzen ditu Antxeta Irratiak. “Ahaztu gabe irrati bat garela, eta proiektu guzti horiek irratiarekin nolabaiteko lotura izan behar dutela”, zehaztu du Aitziber Zapirainek. Mahai-inguruak, hitzaldiak, jardunaldiak edo emankizun sorta bereziak izan daitezke, besteak beste.

Urteak daramatzate, adibidez, irrati-tailerrak eskaintzen. Eskoletan, edo elkarte eta eragile ezberdinei zuzenduta. Helduekin, helburua irrati komunitarioaren izaera azaltzea izaten dela argitu du Zapirainek: “Komunikatzeko eskubidea guztiona da, eta irratia haien esku dagoen tresna bat besterik ez da”. Ikastetxeetako haurrekin, medioa ezagutaraztea eta ikasgelatik kanpo euskaraz aritzeko aukera badagoela frogatzea dute helburu: “Haur batzuentzat, irakaslea entzuteko hizkuntza da euskara. Besterik ez. Erakusten diegunean euskaraz irrati bat egin daitekeela, beste ate bat irekitzen diegu”.

Irrati elkarte izatearen beste ezaugarri nagusia, laguntzaileen sarea da. Lau langile ditu, gaur egun, Antxeta Irratiak. Baina laguntzailez inguratuta daude. Ekarpen ezberdinak egiten dituzte: irratsaioak ekoiztu, jarduera paraleloak antolatzen lagundu, etab. Bestalde, Euskal Herriko, Europako eta mundu mailako sareetako kide da Antxeta Irratia: Euskal Irratiak Iparraldeko irratien federazioa, Euskal Herriko irratien Arrosa sarea, edo AMARC (Mundu mailako irrati komunitarioen elkartea). AMARC-en Europako zuzendaritza markoan, hizkuntza gutxituen arduraduna da Antxeta Irratia. FM-ko 89.7 eta 90.5 frekuentzietan, edo www.antxetamedia.info web gunean entzun daiteke Antxeta Irratia.

Lekukoa luzatu du Super Amara BATek

4XMilia errelebo lasterketa berritzailea antolatu du atletismo elkarteak

Oraingoan bai. Lortu dute. Goia jotzear dagoen herri lasterketen munduan, benetan berritzailea den proposamena egin du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Errelebo lasterketa antolatu du, herri lasterkarien taldeentzat, enpresentzat, eta federatuentzat. Martxoaren 20an izango da, igande goizean, Irungo hirigunean. Zabaltza plazan egongo dira irteera eta helmuga.

Atletismo federatuko lehia alde batera utzi gabe, herri lasterketen antolaketan murgildu da Super Amara BAT azken urteotan. Eskaintza zabala da, eta hortaz, zaila da nabarmentzeko modua topatzea. Antolatu duen seigarren lasterketarekin, ordea, beste ate bat zabaldu du BATek. "Erabat ezberdina da. Guk antolatutako lasterketetekiko, baina inguruan dauden beste guztiekiko ere bai", baieztatu du Ibon Muñoz BATeko kirol zuzendariak. Errelebo lasterketa antolatu dute, pistan egiten direnen parekoa, baina errepide gainean. 4XMiliako lasterketa izango da (1.609,344 metro, laukoteko kide bakoitzak).

> "Ingalaterran hedatutako distantzia da milia, eta garai batean sona handia izan zuen"
>
> **Joseba Sarriegi, BATeko kidea**

Distantzia "enblematikoa" aukeratu dutela azaldu du Joseba Sarriegi klubeko kide beteranoak: "Ingalaterran hedatutako distantzia da, eta garai batean sona handia izan zuen. 1964an Roger Bannisterrek lau minutuen muga gainditu zuenean, Everestaren gailurrera iristearekin konparatu izan zuten lorpena". Sistema dezimala gailentzearekin batera, beste distantzia batzuk nagusitu dira atletismoan. Baina oraindik ere, milia lasterketak antolatzen dituzte leku askotan. Irunen, Gipuzkoako Atletismo Federazioak homologatutako ibilbidea prestatu dute, Colon ibilbidean gora eta behera. Zabaltza plazatik geltokiko zubira joango dira korrikalariak, handik San Juan plazara, eta Zabaltzara buelta, bukatzeko. Lauko taldetan ariko dira parte hartzaileak, eta milia bana egingo du bakoitzak. "Lekukoa pasa beharko diote elkarri", azpimarratu du Sarriegik.

Hiru kategoria egongo dira. Alde batetik, herri korrikalariena. "Pistako atletismoaren sentsazioak eta emozioa bizi ahal izango dituzte", adierazi du Ibon Muñozek. Nesken taldeek, mutilen taldeek, edo talde mistoek parte hartu ahal izango dute. Bestetik, enpresei zuzendutako lasterketa egingo dute. Enpresen arteko beste lasterketetekiko izango duen aldea nabarmendu du Joseba Sarriegik: "Beste lekuetan ere egin izan dira enpresen lasterketak, baina denak batera irten eta helmugaratu behar izaten dute. Guk erreleboetako formatua planteatzen dugu". Hirugarren kategoria, atletismo klubetan federatuei zuzendua izango da. 4XMilia erreleboetako Euskadiko Txapelketa egongo da jokoan.

Parte hartuko duten taldeen kopurua handia izan daiteke. Horregatik, hainbat lasterketa egingo dituzte goiz osoan zehar. Izena emateko epea, lasterketaren aurreko asteartean amaituko da, eta asteazkenean, lasterketen ordena eta ordutegia argitaratuko dute antolatzaileek. Gainera, izena ematerakoan, taldeek korrikalarien hurrenkera zehaztu beharko dute, irteerak eta lekuko aldaketak antolatzea errazteko. "Lekukoa pasatzeko aldaketa egiterakoan ordena egon dadin, kolore biziko alfonbra bat jarriko dugu, eta Gipuzkoako Atletismo Federazioko epaileak egongo dira kontrolatzen", azaldu du Muñozek.

> "Pistako atletismoaren sentsazioak eta emozioa bizi ahal izango dituzte parte hartzaileek"
>
> **Ibon Muñoz, BATeko kirol zuzendaria**

Ohiko zerbitzuak eta izena emateko bideak

Zabaltza plaza izango da lasterketen erdigune, eta han bertan emango dituzte elikagaiak eta edariak. Kontsigna zerbitzua ere eskainiko dute. Lasterketako dutxak eta aldagelak, Artaleku kiroldegian egongo dira. Izena emateko bideak ere ohikoak izango dira: kirolprobak.com eta pb-organisation.com. 28 euro ordaindu beharko ditu talde bakoitzak. Dortsalak eta korrikalarien poltsak martxoaren 18an banatuko dituzte, goizez, Iparralde hiribideko Super Amara supermerkatuan.

15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute erreleboetako lasterketan. Baina haurrentzat, Igande Sasoi berezia antolatuko du Bidasoa Atletiko Taldeak, egun eta leku berean, Irungo Udalarekin elkarlanean. Atletismoko modalitate ezberdinak landuko dituzte. Horretarako, koltxonetak, hesiak eta bestelako materiala eramango dute. Irungo Udalaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Adegi Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak eta Laboral Kutxak babestu dute Super Amara BATek antolatutako lehen errelebo lasterketa.

MAIALEN GARCIA:

“Urtetan ikasitako guztia transmititzen saiatzen naiz”

Hiru urte besterik ez zituela hasi zen Maialen Garcia gimnasia erritmikoan. Hemezortzi urterekin utzi zion lehiatzeari, baina entrenatzaile aritu da orduz geroztik, Asociación Deportiva Irunesa elkartean. Aldi berean, dantzari gisa ere ibilbidea egin du, My Dance Studio akademia irekitzeraino. Colon Ibilbideko 39.ean dago, eta 3 urtetik gorako 150 ikasle ditu.

Gogoan duzu zergatik hasi zinen gimnasia erritmikoan?
Lehengusina nagusiak gimnasia erritmikoa egiten zuen, eta haren urratsak jarraitu nituen. Hemezortzi urte bete nituen arte ibili nintzen. Orduan, lesio baten ondorioz utzi behar izan nuen.

Nola gogoratzen dituzu urte haiek?
Gimnasiak diziplina, ordena eta konpromisoa edukitzen irakatsi zidan. Taldekideekin ariketa aurrera eramateko ahalegin hori oso aberasgarria da.

> “Arlo asko lantzen dira gimnasia erritmikoan”

Ballet-a, dantza eta gimnasia uztartzen ditu, besteak beste. Nola definituko zenuke?
Kirol osoa da, arlo asko lantzen ditu. Malgutasuna, adibidez, ezinbestekoa da. Erresistentzia ere bai, ariketa osoan zehar nekeari eusteko. Erreakzio abiadura da beste aspektu garrantzitsuetako bat, uztaia, pilota edo zinta hartzeko. Indarra ere lantzen da.

Ibilbide laburra izaten dute gimnastek. Zergatik?
Gaur egun, AD Irunesa klubeko helduenek unibertsitateko klaseekin uztartzen dute gimnasia erritmikoa. Baina egia da gimnasta gehienen ibilbideak laburrak izaten direla. Normala da, ikasketekin uztartzea zaila baita. Astean lauzpabost orduz entrenatzen dute Irunesako neska-mutilek.

Entrenatzaile zabiltza gaur egun. Oso ezberdina al da?
Urtetan ikasitako guztia transmititzen saiatzen naiz. Lehen aholkuetako bat izaten da dena ez dela lehen saiakeran ondo ateratzen. Ahalegina egin behar dela, eta emaitzak denborarekin iristen direla.

Zein da klubaren egoera, gaur egun?
Sei-zazpi entrenatzaile gaude. Entrenamenduak adinen arabera banatzen ditugu. 3 urteko gimnastak ditugu, eta 20tik gorakoak ere bai.

Neskak dira, batez ere?
Bizpahiru mutil daude. Beste klub batzuetan, ordea, gero eta gehiago dira. Arazorik gabe egin dezakete mutilek gimnasia erritmikoa. Maila handia ematen duten mutilak daude Espainiako Txapelketetan.

Dantzaren munduan ere bidea egin duzu, My Dance Studio akademia irekitzeraino.
Artaleku kiroldegian eta beste akademia batzuetan ibili izan naiz dantza klaseak ematen. Baina senideek eta nirekin dantzan ari ziren haurren gurasoek animatuta, nire akademia irekitzea erabaki nuen. Bigarren ikasturtea daramat dagoeneko, eta oso pozik nago. 150 ikasle inguru ditugu.

Zein dantza eta jarduera mota eskaintzen duzue?
Gorputz-teknika, Dancehall, Break Dance, Hip-hop, Funky eta Zunba taldeak ditugu.

> “Lehiaketetan parte hartzen hasi ginen, haurrek dantza egiteko aukera gehiago izan zitzaten”

Lehiatzen ere hasi zarete?
Bai, lehiaketetan parte hartzen hasi ginen, haurrek dantza egiteko aukera gehiago izan zitzaten. Bestela, bizpahiru saio besterik ez zituzten izaten urte osoan. Ondo pasatzera joaten gara, irabazteko helbururik gabe. Hala ere, emaitza onak lortu ditugu. Martxoan hasiko da aurtengo denboraldia.

Dantzan ere neskak al dira nagusi?
Gehiago dira, baina Break Dance moduko estiloetan, adibidez, mutil asko daude.

Gero eta akademia gehiago daude. Loraldia bizi du dantzak?
Lagunek egiten dutenaren arabera erabakitzen dute haurrek zein jarduera egin. Baina egia da azken urteotan dantzak indarra hartu duela. Ni asko pozten naiz. Oso gomendagarria da kirol jarduera gisa.

MÓNICA ZAFRA, frantses filologoa:

"Pentsamendu kritikoa piztea dugu helburu"

Frantsesezko solasaldiak egiten dituzte, bi astean behin, Carlos Blanco Aguinaga Kultur Gunean. Hogei lagun inguruko taldea biltzen da, frantsesa praktikatzeko asmoz (Ostiraletan 16:00etan). Hala ere, ez da elkarrizketa hutserako gunea. Prentsako testuak lantzen dituzte, izpiritu kritikoa esna mantentzeko asmoz. Mónica Zafra frantses filologoak zuzentzen ditu solasaldiak. Nafarra da sortzez, gaur egun Hendaian bizi da, eta frantses ikastaroak ematen ditu Irunen.

Zer nolako esperientzia izaten ari da frantsesezko solasaldiena?

Hirugarren urtea dugu jada, eta oso esperientzia ederra izaten ari da. Jendeak asko baloratzen du frantsesa doan praktikatzeko aukera. Niretzat ere aberasgarria da. Unibertsitate garaian, beste ikasleekin izandako elkarrizketei esker hartu nuen hitz egiteko konfiantza. Beti argi izan dut jaso ditugun gauza onak, gero eman ere egin behar ditugula.

Zein izaten da saioetako dinamika?

Hasieratik argi geneukan ezin zuela elkarrizketarako espazio hutsa izan, elkar-trukerako gunea baizik. Kultura frantsesera eta frankofonora hurbildu nahi genuen. Ez da ahaztu behar frantsesak ez diren, baina frantsesez hitz egiten duten 100 miloi hiztun baino gehiago daudela munduan. Bestalde, pentsamendu kritikoa piztea dugu helburu. Informazioa aurrez prestatua ematen digute, eta horren aurrean, pentsatzeko eta hausnartzeko senari eustea garrantzitsua da.

Nola lortzen duzue?

Prentsako testuekin lan egiten dugu. Prentsa frantsesa, batez ere, eskura dugun baita. Marokoko edo Aljeriako egunkariren bat edo beste ere lortu izan dugu noizbehinka. Baina gehienetan, Frantziako egunkariak baliatzen ditugu. Testuak hautatzen ditut, gehienetan gaurkotasunezko gaiekin harremana dutenak. Testu horiek bi astez lantzen dituzte etxean. Ikuspegi kritikoa garatu dezaten nahi nuke. Ez daitezen konformatu telebistan ikusten dutenarekin. Gero, gaiari buruzko iritziak elkar trukatzen ditugu.

Adibidez, duela zenbait aste, Parisen egin zuten COP21 klimari buruzko goi bileraren inguruan informazioa bilatzeko esan nien. Zailtasun handiak izan zituzten, eta informazio gabezia horren arrazoien inguruan eztabaidatu genuen saioan. Ikusi dudana da adinekoak gazteak baino askoz ere kritikoagoak direla. Edonola ere, orokorrean, oso ideia originalak ateratzen dira.

> "Gonbidatu frankofonoak ekartzen saiatzen naiz"

Zein beste gai landu izan duzue?

Gaiei dagokienez, aniztasuna bilatzen dugu. Hala ere, politikaren edo erlijioaren moduko gaiak alde batera uzten saiatzen gara. Beti ez da posible, azken aldi honetan jihadismoarekin edo errefuxiatuen krisiarekin, esaterako.

Literatura ere lantzen dugu. Kultura frantziarraren zati garrantzitsua baita. Albert Camusen jaiotzaren mendeurrenean, adibidez, bere testu bat landu genuen. Aurten Colette autorearen beste bat ikusiko dugu. Bestalde, gonbidatu frankofonoak ekartzen saiatzen naiz. Hiruhileko bakoitzeko bat, gutxienez. Migrazioan espezialista bat ekarri dugu aurten, Baionako komisarian lan egiten duena. Errefuxiatuen krisiari buruzko beste ikuspegi bat eman zigun.

Zein da parte hartzaileen profila?

Denetarik daukagu. Bai ikasketei, baita frantses mailari dagokionez ere: 50eko hamarkadako migranteak, mugan lan egin izan duen jendea, ikasle gazteak ere bai. Hasieran, erretiroa hartutako adineko jendea zen gehiena, baina gero eta gazte gehiago ditugu. Aurten, lehen aldiz, neska magrebtarrak daude taldean. Egia da parte hartzaile gehienak emakumezkoak direla, eta kostatzen zaigula gizonezkoak erakartzea. 15 lagun ingururekin hasi ginen, eta aurten 21 ditugu. Ordu beteko saioa dugu bi astean behin, eta zaila da denei hitz egiteko aukera bermatzea.

> "Parte hartzaile gehienak emakumezkoak dira"

Gaur egun muga fisikorik ez bada ere, hesi kulturala existitzen dela esaten da. Zenbaterainokoa da?

Ez dago horrenbesteko alde kulturalik. Nik, behintzat, ondorio hori atera dut urte hauetan. Nire ustez, arazo handiena da ez dugula elkar ezagutzen. Zentzu horretan, hizkuntzek elkartu egin gaitzakete.

Eskolan frantsesez ikasten zuten garai bateko irundarrek. Gaur egun ingelesa jasotzen dute.

Hori dela eta, gaur egun Irunen frantsesez hitz egiteko gai den jende gehiena heldua da. 65-75 urteko gizon-emakumeak, batez ere. Orain, lan arloko arrazoiak direla eta, gazteak frantsesa ikasten hasi dira berriro. Dena den, frantsesa Lehen Hezkuntzatik baztertu izanak min handia egin du jada. Elkarrizketa bat eduki ahal izateko, edo egunkari bat ganoraz irakurtzeko gai izateko, urte askotako prestaketa behar duzu. Nik frantsesa ikastera gonbidatuko nituzke gazteak, eta hizketaldietan parte hartzera ere bai.

SAN VICENTE DE PAUL HH Urko Salgado Iza

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

SAN VICENTE DE PAUL DBH1 Maialen Prada

Maialen Prada

Aitona hilzorian omen zegoen, eta ohetik begiak ireki, eta hor hasten da hizketa:
– Maria, hemen al zaude?
– Bai, bai, hemen nago. Hemen nago.
– Andres, hemen al zaude?
– Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago
– Xabier , hemen al zaude?
– Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.
– Denak hemen al zaudete?
– Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.
– Eta danak hemen bazaudete, zer egiten du pasilloko argiak piztuta?

Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:
– Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.
– Oso ongi, oso ongi!
Eta zein da bigarren notizia? –galdetzen dio amak.
– Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959-III-8) (El Bidasoa, 1959-III-21)

Minazoluan bizi ziren gillenak

Gillenak atera ziren minazoluan ondora, eguzkiya artzera, eta illia orraztutzen aittu ziren.

Joantzen Barin´go neskamina, artu zuen orrazia eta eramantzuen itxera.

Gabian jo zuten atia bi aldiz eta esantzuten:

- Barin´go neskamina, non dun nere orrazia? Ezpaldinbadun ekartzen, emango diñet ire denbora guziko ezurretako oñaiza.

Eta urrengo egunian eramn zuen toki berara.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

IRAITZ ARABOLAZA, artista:

“Nahiko obsesiboa naiz proiektu berriak ditudanean esku artean”

Inauterietako kartel lehiaketa irabazi zuen, eta han eta hemen ibili zen bere *Mozorro komiki*. Iraitz Arabolazaren lana ezagutzeko lehen aukera izan zen irundar askorentzat. Baina gaztea izanagatik ere, urteak daramatza artearen munduan murgilduta. Txingudi Ikastolan eta Pio Baroja institutuan ibili ondoren, Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean. Ez du bere helburua ezkutatu: “Artetik bizi nahi nuke”. Ahaleginak egiten ari da.

Noiz piztu zitzaizun artearekiko interesa?
Betidanik gustatu izan zait. Txiki-txikitan hasi nintzen marrazkiak egiten. Gurasoek, hori ikusita, laguntza handia eman zidaten. Pintura eta eskulan tailerretara eraman ninduten. Mundu horrekin lotuta ibili izan naiz beti.

Txikitako marrazkietatik Arte Ederrak ikastera badago jauzia. Zergatik eman zenuen?
Argi neukan Arte Ederrak ikasiko nituela. DBHn, jada, ildo artistikoko hautazko ikasgaiak aukeratu nituen, bide hori jarraitzeko asmoz. Ondoren zer egingo nuen, ez nekien. Baina Arte Ederrak ikasiko nituela, ziur. Senideen eta lagunen erabateko babesa izan nuen, gainera. Gaur egun, ez dut uste beste lanbide asko baino okerrago dagoenik.

Nola gogoratzen duzu unibertsitateko garaia?
Lehen urtea ederra izan zen. Beste mundu bat esploratzearen moduko zerbait. Jende eta giro berriak ezagutu nituen, irakasgaietan ere oso gustura ibili nintzen, dena probatzen eta kuxkuxean, etengabe. Gero, bigarren mailan, Bolonia plana sartu zen indarrean, eta zeharo aldatu zen sistema, eta fakultateko giroa ere bai. Beste itxura bat hartu zuen, serioagoa eta itxiagoa. Ondorioz, hirugarren mailan kanpora joatea erabaki nuen. Argentinan egon nintzen, eta beste mentalitate batekin bueltatu nintzen.

Baloratzen al duzu fakultatean ikasitakoa?
Karreran zehar iruditzen zitzaidan ez nintzela ezer ikasten ari. Nik uste pentsamendu hori nahiko orokorra dela. Denborarekin konturatu naiz baietz, oinarrizko jakintza batzuk landu nituela. Sentsibilitatea barneratua dut, eta gauza batzuk modu automatikoan antzematen ditut orain. Gure karrera oso praktikoa da, eta konturatu gabe ikasten dituzu gauza asko. Gerora ikusten da horren emaitza.

Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterra ikasi zenuen. Irakaskuntzara bideratu nahi zenuelako, edo beste irtenbiderik ikusten ez zenuelako?
Hasi, beharbada, amak bultzatuta hasi nintzen. Ate hori ez isteko, badaezpada. Baina egia esan, praktiketan oso gustura ibili nintzen. Orain Oiartzungo Haurtzaro Ikastolan lanean nabil eguerdietan, haurrei eskulanak egiten erakusten. Dena den, irakaskuntzan murgilduta ere, nire proiektuak ez ditut alde batera utziko.

Pintura landu duzu, erretratua batez ere. Nola azalduko zenuke zure estiloa zein den?
Espresionismoaren eta fauvismoaren artean kokatuko nuke. Koloreak indar eta garrantzia handia du nire lanean. Egia da erretratuak asko gustatzen zaizkidala. Erakargarriak iruditzen zaizkidan aurpegiak aukeratzen ditut. Baina ez ederrak direlako, bakarrik. Adineko jendeak, adibidez, asko erakartzen nau. Haien azaleko zimurrekin eta testurekin. Bestalde, pertsonaren istorioa ezagutzea gustatzen zait, erretratuaren bidez irudikatzen saiatzeko. Gero, bakoitzak nahi duen bezala interpreta dezake.

Mamarratxuk marka sortu duzu, eta bitxiak saltzen dituzu.
Duela bi urte inguru hasi nintzen eskumuturrekoak, belarritakoak, lepokoak eta abar egiten. Lagunei saltzen dizkiet, internet bidez ere bai. Batzuetan azoketan ibiltzen naiz, doan edo oso merke direnetan, behintzat. Mamarratxuk marka sortu dut, produkzioa gero eta handiagoa zelako, eta izena eta logotipoa edukitzeak beste osotasun bat ematen ziolako.

Non egiten duzu lan? Ba al duzu tailerrik?
Gurasoekin bizi nintzenean, ganbara handi bat nuen. Nire logela eta tailerra zen. Han lurrean jartzen nintzen, lasai ederrean. Orain etxe txiki batean bizi naiz, eta egongela desmuntatu behar izaten dut lurrean jartzeko. Proiektu bati heltzen diodanean, dena hankaz-gora jartzen dut.

Nahiko obsesiboa naiz proiektu edo ideia berriak ditudanean esku artean. %100 murgiltzen naiz. Batzuetan gehiegi, bizitza soziala ere alde batera uzten dut. Urtarrilean zeramika klaseetara joaten hasi nintzen, eta orain jo eta su nabil horrekin.

Zaila da artea ogibide bilakatzea?
Hori da nire helburua, eta horretan ari naiz, pixkanaka. Kontua da denbora guztian lan bila ibili behar zarela, batetik bestera. Gainera, ni ez nago ezertan bereziki espezializatuta. Esparru zabala hartzen dut: pintura, bitxiak, muralak... Enkarguekin eta ikastetxeetako lanekin ari naiz aurrera egiten.

Zein proiektutan zabiltza orain lanean?
Erakusketa kolektibo batean parte hartuko dut, Antxeta Irratiaren hamabosgarren urteurrena dela eta. Bost artista izango gara, eta Hondarribian, Irunen eta Hendaian ikusi ahal izango dira gure lanak. Hiru erretratu prestatzen ari naiz. Bestalde, martxoan artisau azoka pare batean egongo naiz.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID: 655 70 98 93

ASEXORATE

Zer? Sexu hezkuntza tailerrak, bi hilean behin. Psikologo batek zure galdera guztiak erantzungo ditu. Konfidentziala eta doakoa da.

Noiz? Hilabeteko azken ostiralean.

Non? CBA Kultur Gunean.

Ordutegia? 17:00etatik 19:00etara.

Zalantzak bidaltzeko? www.irun.org/igazte, emailen bidez: igazte@irun.org, telefonoz: 943 505 444 edo 943 505440, whatsappez: 607 771 173.

Informazio gehiago?
http://www.irun.org/igazte/

EMAKUMEENTZAKO AHALDUNTZE ESKOLA 2016

Zer? Emakumeen garapen pertsonala, soziala eta kulturala lantzeko ikastaroen bitartez, hausnarketarako, prestakuntzarako eta biltzeko eremua sortzen da.

Non:CBA Kultur Gunean.

Noiz? apirilak 22 eta 29, maiatzak 6.

Prezioa? 17,50 euro.

Ordutegia? 10.00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Izena emateko?
Telefonoa: 010, 943 50 51 52
web orria:
www.irun.org/igualdad

IRUN FACTORY - 2016KO PRESTAKUNTZA PROGRAMA SORKUNTZA KOMUNITATERAKO

Zer? Sorkuntza komunitateari zuzendutako prestakuntza programaren 3. zikloa abian jarri du: Aurrekontua eta finantziatzeko moduak, proiektuak egitea, Marketin eta Branding 2.0, zure kultur proiektua autogestionatzeko jakin behar duzun guztia.

MARTXOAK 3 - HITZALDIA: Rock and roll branding, Jordi Ballerak eskainia.

Ordutegia: 16:00-19:00.

MARTXOAK 10 - TAILERRA: Zenbateko kostua du nire lan ordu batek? Ana Geak eskainia.

Ordutegia: 16:00-20:00.

MARTXOAK 17 - ADOSTU TAILERRA: kulturaren eta sorkuntzaren sektorerako salmenta-sistema berriei eta finantziazioari buruzkoa.

Ordutegia: 10:00-13:00.

Informazio gehiago:
www.irun.org

JA, JA, JA, JI, JI, JI... BARRETERAPIA TAILERRA

Noiz? apirilaren 8, 15 eta 22.

Ordua? 17.00.

Non? Saindua Gaztelekuko ganbaran (Jaizkibel etorbidea, 19 - Hondarribia).

Prezioa? 5 euro.

irun gazte informazioa
www.irun.org/igazte

- Aurrez aurre: Irungo CBA Kultur Gunean
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

MARTXOAK 8aren INGURUKO EKITALDIAK
Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 7 eta 14; Apirilak 4, 11, 18, 25 eta Maiatzak 2 eta 9

Zer? Emakumeentzako ahalduntze eskola 2016. "Berdintasunetik maitatzea" ikastaroa eskainiko dute, 2 orduko 8 saiotan. Adin guztietako emakumeei zuzenduta.

Ordua? 9:30tik aurrera.

Non? Irungo CBA liburutegi berrian.

Prezioa? 17,50 euro, aldez aurretik izena emanda.

Informazio gehiago? www.irun.org

Martxoak 8

Zer? Genero-indarkeriaren kontrako kontzentrazioa.

Ordua? 19:00etan.

Non? Zabaltza plazan.

Martxoak 8

Zer? Flashmob, My Dance Studioren eskutik. Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria arloek antolatua.

Ordua? 18:45etan.

Non? Zabaltza plazan.

Martxoak 8

Zer? Zenbait emakumek haien esperientziak kontatuko dituzte. I-Romik antolatuta.

Ordua? 10:00etan.

Non? Zabaltza plazan.

Martxoaren 14an eta apirilaren 18an

Zer? "Genero berdintasunerako arrazoiak", tailerra doan eskainiko dute. Gaurko Andreak elkarteak antolatua.

Ordua? 17:30etatik aurrera.

Non? Kale Nagusia 11-2.

Izena emateko? gaurkoandreak.irun@gmail.com

Martxoak 17

Zer? Nekane Soriak (Realaeko zuzendaritzan dagoen emakume bakarra) gidatuko du "Emakumezko erreferenteak kirolean" hitzaldia, eta gero, jendeak galderak egin ahal izango ditu, eztabaida txiki bat sortu ahal izateko. Gaurko Andreak elkarteak antolatua.

Nori zuzendua? Hezkuntzan dabilen jendeari, gazteei, kirol taldeei, eta gaiaren inguruan interesa duen jendeari.

Ordua? 19:00etan.

Non? Amaia K.Zn.

Martxoak 23

Zer? "LARRE MOTZEAN" dokumentala. Emakume baserritarren bizitza eta diruaren kudeaketa. Lan asko, gutxirekin moldatu. Hainbat belaunaldiko emakumeek beraien esperientziak azalduko dituzte.

Gaurko Andreak elkarteak antolatua.

Prezioa? Doan.

Ordua? 19:00etan.

Non? Amaia K.Zn.

Emakumeen Nazioarteko Eguneko gainerako jarduerak: www.irun.org

Otsailak 26tik apirilak 2ra

Zer? Maite Rosendek Gazte artean EXPOn parte hartuko du. Irudi sinpleetan, adierazkortasun bizia, elkarrizketa garbia eta argiztapen zehatza topatzen dituen ilustratzailea da.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera: 17:00-21:00.

Prezioa? Doan.

Martxoak 2

Zer? Haurrei zuzendutako kontu kontaria. "Bihotzetik" istoria kontatuko du Dorleta Kortazarrek. 4-7 urte bitartekoei zuzendua.

Non? CBA Udal Liburutegian.

Ordua? 17:30etan.

Prezioa? Doan

Martxoak 6

Zer? Meakako Adixkideak taldeak Mutxikoen dantza saioa antolatu du.

Non? San Juan Plazan.

Ordua? 12:00etatik 13:00era.

MEAKAKO ADIXKIDEAK DANTZA TALDEA IRUN

euskara lau haizetara

EUSKARAREN HILABETEA

2016KO OTSAILAREN 16TIK MARTXOAREN 11RA

Ayuntamiento Udala

irun

www.irun.org